

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AUDIOKO, BIDEOKO ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO EKIPOEN MUNTAKETA ETA MANTENTZE-LANAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF1107		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuen segurtasun- eta erosotasun-sistemak	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Gidatzeko segurtasun- eta laguntza-sistemen mantentze-lanak	Iraupena	40
	Klimatizazio-sistemen mantentze-lanak		40
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0628\_2: IBILGAILUEN SEGURTASUN- ETA EROSOTASUN-SISTEMEN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Audio-, bideo- eta telekomunikazio-ekipoak muntatzea, eta ekipoen instalazioa eraginkor mantentzea.

E1.1 Ekipoen ezaugarriak eta haren instalazioa azaltzea, bloke-diagramen bidez.

E1.2 Ekipo-elementuak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesua deskribatzea. E1.3 Bidaiari-lekuan ekipoaren osagaiak zuzen kokatzea.

E1.4 Elikadura-konexioak egitea, zirkuitua fusible egokiarekin babestuz.

E1.5 Sistemaren funtzionaltasuna egiaztatzea, dituen prestazioen arabera.

A2: Audio, bideo eta telekomunikazioko elementuak edo ekipoak ordeztzeko eta/edo konpontzeko behar diren material, ekipo, erreminta eta tresneria espezifikoak trebetasunez erabiltzea.

E12.1 Ekipoa maketan edo ibilgailuan muntatzea, muntaketan esku hartuko duten faktoreak aztertuz:

- Ekipoaren aurreinstalazioa. Kableatu berriak.
- Elementuak kokatzeko dauden tokiak.
- Bozgorailuak, pantailak, antena, kondentsadoreak, perturbazioak eragoztekoak eta abar zuzen kokatzea.

E12.2 Neurgailu egokiak erabiltzea.

E12.3 Sistema behar bezala dabilela egiaztatzea.

E12.4 Ekipoak eta baliabideak erabiltzeko arauak aplikatzea, baita lan-prozesuan zehaztutako segurtasun-arauak ere.

A3: Audio-, bideo- eta telekomunikazio-ekipoetan matxurak konpontzea.

E13.1 Sistema matxuratuari egokitutako diagnosi-teknikak erabiltzea.

E13.2 Ekipoeko elementuak konpontzea edo ordeztzea.

E13.3 Matxura ohikoenen kausak eta ondorioak azaltzea.

E13.4 Sistemaren funtzionaltasuna egiaztatzea, dituen prestazioen arabera.

##### Edukiak

###### 1. Audio-ekipoak

- Soinu-ekipoen ezaugarriak eta teknologia.
- Aurretiazko, anplifikazioko eta ekualizazioko etapak.
- Bozgorailuak eta kutxak. Presio akustikoa eta errendimendua.
- Muntaketako eta kableatuko eskemak interpretatzea.

###### 2. Bideo- eta multimedia-ekipoak.

- Bideo- eta multimedia-ekipoen ezaugarriak eta teknologia.
- Bideokontsolarako pantailak eta interfazeak.
- Muntaketako eta kableatuko eskemak interpretatzea.

###### 3. Telekomunikazio-ekipoak.

- Ahots, mezu edo telelaguntza bidezko telekomunikazio-sistema.

- GPS bidezko sistemak.
- Bluetooth bidezko komunikazioak.
- Muntaketako eta kableatuko eskemak interpretatzea.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak